



Bide Berdeen egunaz gozatzeko ia 800 lagun elkartu dira Leitzan

PLAZAOLA ▶ Trenbide berreskuratuan ibilaldiak egin eta ekintzetan parte hartzeko aukera izan zuten ▶ 7



Urmeek pailazo talde batekin egin zuten Leitzako Estaziotik Erreka auzorako joan-etorria. J. ASTIBIA



JOXIN AZKUE

Usurbildarrekin batera, Andatza Egunean

ZIZURKIL ▶ Urteroko ohiturari jarraituz, Zizurkil eta Usurbil lotzen dituen mendi eremuan goiz-pasa egin zuten herenegun ▶ 4

BALIARRAIN ▶

Txekor jatearen aitzakian, festa eguna

Bazkariaz gain, lore azoka, erakusketa eta lehiaketa izan ziren ▶ 5



Herritarrek eraberritutako tresnen erakusketa. HITZA

hitza
argazki
lehiaketa


eman botoa

BOTOA EMATEKO

- ▶ P. elektronikoz: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
 - ▶ Telefonoz: 943 65 56 95
- Botoaz gain, datu pertsonalak behar ditugu

Irabazleak, maiatzak 14 igandeko egunkarian

**Sari
nagusia**



**Bidaia Agentzia
bidaide**
www.bidaide.gruposercor.com

BIDAIA paregabe bat zure neurrira

2 laguntzat 5 eguneko egonaldia,
mantenu erdiarekin
Asturiasen edo Costa Bravan



Erniobea, 6-behea • 201 50 Villabona
Tel.: 943 692 693
bidaide@gruposercor.com

**ZOKETA
APARTAK**

PARTE-HARTZAILE ETA BOTOEMAILA
guztien artean HITZAren motxila eta
mendiko gerriko poltsa zozkatuko dira



ARRAUNA ▶



Senior mailako mutilak, entrenamendu saio batean . HITZA

Hasiera makala eman diote TAKekoek ligaxkari

4. jardunaldia eta gero, Trainerillen Ligako 22. postuan dago senior mutilen taldea

E. EZEIZA

Gipuzkoako Trainerilla Ligaxkako lau jardunaldi jokatu dira dagoeneko. Eta azken biak pasa den asteburuan izan ziren, bata Donibane Lohizunen, eta bestea Hondarribian. Eskualdekoen artean, Tolosaldeko Arraun Klubeko (TAK) senior mailako mutilak soilik hartu zuten parte. Honela, larunbatekoan 25. geratu ziren eskualdekoak, 15 minutu eta 31 segundoko denborarekin. Hondarribiako probetan, berriz, 15 minutu eta 59 segundu behar izan zituzten, eta 24. geratu ziren. Bi jardunaldietan Orio A taldeko trainerillak lortu zuen lehen postua.

Lau hauek eta gero, bosgarren eta seigarren jardunaldiak asteburuan honetan jokatuko dira. Lehenengoa larunbatean izango da, Orio inguruko uretan, eta bestea igandean, Getaria aldean.

Orain arteko lau lasterketak jokatu ondoren, Tolosaldeko mutilak sailkapen orokorreko 22. lekuan daude.

Sanjoanetako estropadak

Ekainaren 18an eta 25ean egingo dira aurten sanjoanetako batel estropadak Orio ibaian. Honela, han parte hartu nahi duten batelek bihar edo ostiralean, Tolosako Kultur Etxean, 18:00etatik 20:00etara agertu beharko dute.

Bestetik, atzotik hasita, eta aste osoan, Tolosako ikastetxeetako 300 bat gaztetxok uretan arraun hastapen ikasitxarok jasoko dituzte Orián.

ARETO FUTBOLA ▶

Merezitako garaipena lortu dute Lezon Laskoraingoek

3 eta 4ko emaitzarekin irabazi zuten horitxoek, larunbatean, Allerruren aurka jokaturako derbian



Laskorain taldeko futbolariak partidu baten aurretik, arriboko irudian. HITZA

ESTI EZEIZA

Joan den larunbatean 3-4 irabazi zuen Laskorainek Allerruren aurka, Lezoko Bekoerrotako polikiroldegian jokaturako partiduan. Emaitzak islatzen duen estutasuna alde batera utzirik, Tolosakoek uste baino errazago lortu zuten garaipena.

Aurtego denboraldian une larunbatean ari den Allerru taldea, behar-beharrezkoak zirela 3 puntuak datorren urtean Nazional B mailan jokatzeko ahal izateko. Arlo horretan etxeko lanak beterik eta sailkapeneko postu erosoetan finkatuta dauden Egizabalen mutilak, denboraldia amaitzeko 3 partidu besterik gelditzen ez zirenean, lasai eta inongo urduritasunik gabe jauzi ziren kantxara, areto futbolekoan jokatzea eta 40 minutuetan zehar jokatzea helburuarekin, beti ere

jarrera lehiakor baten parametroen barnean mugituz.

Norgehiagoka hasi bezain pronto jarri ziren aurretik horitxoak, Barriolak sarturiko gol bati esker. Dena den, aurkariak markagailuari buelta emateko lortu zuten lehenengo zatia amaitu aurretik; aldageletarako bidean, beraz, 2-1 etxekoan alde.

Bigarren zatian, laskoraindarrak jokoan erabat nagusitu ziren, eta Telletxeak birritan eta Otxoa gazteak sarturiko golekin baliorik gabe utzi zuten Allerruko azken uneko sareratzetza. Amaieran, beraz, 3-4 eta 3 puntuak Tolosara, eztabaidarik onartzen ez duen garaipen bati esker.

Atzoko norgehiagokak 3 puntu baina gehiago balio zituela esan daiteke; izan ere, filialeko lau jokalarik hartu zuten parte norgehiagoka guztian zehar. Urko atezainaren

geldialdi bikainek, Otxoa gaztearen golak, eta jadanik Nazional B mailan sustrai sendoa botata dituzten Ekhiak eta Murgik eskeinitako kalitateak, klubak egiten duen harrobiko lan bikaina agerian uzteaz gain, taldearen etorkizuna zihurtatzen duela diote Laskoraingoek.

«Aipatu beharrean gara ere, nola ez, Alonso-Loreal jokalariek kapitainaren besuztaia eramateko ohorea izan zuela, azkenaldian erabiltzen duen orrazkera bereziak, taldekideak oilarrek egiten duten moduan zuzentzeaz gain, larunbat gaueko oilo eta txitak ere norabidatzeko ahalmena eman diola baitiruditu».

Larunbatean, Lezon aritu ziren Javi delegatua, Egizabal entrenatzailea, Urko, Telletxea, Barriola, Alonso, Gil, Kalixto, Amatriain, Otxoa, Murgi Ekhi eta Domentxe jokalariek.

iragarki laburrak ▶

LANPOSTUAK

Gidariak. Udalean eta Eusko Jaurlaritzan laster lanpostuak B1, BTP eta C1. 943 31 37 82.

Garbitzaileak. Lanpostu libreak: Eusko Jaurlaritzan, ikastetxeak, ospitaleak. Informazioa 943 31 37 82.

Mantenimendu Ofiziala. Ospital, egoitza eta udaltxerako. Informazioa doan. 943 31 37 82.

Gipuzkoako Foru Aldundiak behar

ditu: sukaldari laguntzaileak, obra zaintzaileak, gidariak, zaintzaileak, basozainak, laborategi teknikariak, garbitzaileak. 943 31 37 82.

Osakidetza. Lanpostu libreak. Teknikariak, alborategi laguntzaileak, erizain laguntzaileak, zeladoreak. Informazioa doan. 943 31 37 82.

Langileak. Igeltseroak, elektrizistak, iturginak, lorezainak, palistak, gidariak. Udaletxerako lanpostu libreak.

Informazioa doan. 943 31 37 82.

Administrari laguntzaileak. Beasain, Bergara, Soralue, Mutriku, Zizurkil, Mendara eta Anoetako udalek administrari laguntzaile lanpostuak bete behar dituzte. Informazioa doan. 943 31 37 82.

Aireportuak. Lanpostuak betetzeko: bezeroari arreta, aireko kontrolatzaileak, suhiltzaileak, mantentze-lanak. Informazioa doan. 943 31 37 82.



TOLOSAKO UDALA

IRAGARKIA

Udalbatzak, 2006.eko maiatzaren 3an egin zuen osoko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen: EZ.3 "Gorosabel kalearen luzapena" eremuko 2., 3. eta 5. Exekuzio Unitateko aparkalekua eraikitzeko, eta ustiatzeko lanak adjudikatzeko lehiaketa publikoaren baldintza partikular, tekniko, ekonomiko eta juridiko-administratiboaren agiriari hasierako onespina ematea, Tokiko Korporazioen Zerbitzu Erregulamenduko 121 artikulua xedatuaren arabera, hogaita hamar eguneko informazio publikoko epelaldia ireki da, tarte horren barruan egokitzat jotzen diren erreklamazioak aurkezteko.

Aipameneko epelaldian ez bada inolako erreklamazio idatzirik aurkeztu, behin betiko onartutzat joko da baldintza agina.

Bide batez, adjudikazio prozedurari hasiera eman zaio, Administrazio Publikoetako Kontratuen maiatzaren 19ko 13/95 Legeko 79 artikulua eskatzen duen publikizitatea egin eta gero. Bestalde, baldintza agiriaren kontrako erreklamazioak aurkezteko bada, lizitazioa behar adina atzeratu ahal izango da.

1.- Helburua: EZ.3 "Gorosabel kalearen luzapena" eremuko 2., 3. eta 5. Exekuzio Unitateetan lurpeko aparkalekua eraikitzea, eta ustiatzea.

2.- Epea: Proiektuak: 90 egun natural, Obrak: Hogaita lau (24) hilabete.

3.- Espedientea ikusgai: Tolosako Udaletxeko Obrak eta Hirigintza Departamentuan. Dokumentazioaren kopia toki hauetan eskura daitezke:

- Kopibat [Lizardi olerkaria, 2] Tel.: 943-65-51-66

- Copytec [Samaniego, 1-behea] Tel.: 943-65-40-28

4.- Behin-behineko fidantza: 80.000,00 € [laurogei mila euro].

5.- Behin betiko fidantza: aurrekontuaren % 4.

6.- Eskaintzak aurkezteko tokia eta epea: Tokia: Tolosako Udaletxeko Sarrera Erregistroan [Plaza Zaharra, 6-B]. Epea: lizitazio iragarria Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean agertu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, 45 egun natural, Ordutegia 9:00tik 12:00ak bitartean.

Tolosa, 2006ko maiatzaren 4an, ALKATEA.



GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Udaltzaingo eta hiritarren arretako batzordearen azalpenak

Martxoaren bukaeran eta apirilaren hasieran, hainbat egunkaritarako (TOLOSALDEKO eta LEITZALDEKO HITZA, *Berria* eta *Gara*) kronika lokaletan Tolosako gidari baten idatzia agertu zen. Idatzit hartan, Udala, Udaltzaingoa eta bi agente —plaka profesionalen zenbakien bidez identifikatuta— salatu zituen (hona hemen arrazoiak laburtuta):

a) Udaltzaingoa, orokorrean, langileen aurka joateagatik. Esaterako, izenburu hau

eman zion idatziari: *Tolosako udaltzaingoa langileen aurka*.

b) Udala «Tolosan dagoen aparkatzeko arazoari irtenbideak jarri beharrean isunen talonarioa azkarregi erabiltzen duelako lanean ari direnen aurka».

c) Bi agenteak «bi alditan haren ibilgailuari isuna jarri diotelako: bata, karga laneta rako gunean, 5 minutu baino gutxiago egonda; eta bestea, autobusen geralekuan, 5 minutuz aparkatuta egonda, itxura denez, karga eta deskarga lanak egiten ari zela». Hori bai, artikulua aprobetxatu zuen kolektibo honi buruz ironiaz esateko «portzierto, noizko udaltzaingo euskalduna?».

Aurreko guztiari erantzuteko eta gauzak argitzeko ez bestetarako, Batzorde honek kome-nigarritzat jo du artikulua horri buruz (salaketa, sinatzailearen esanetan) honako hau adieraztea:

1. Udaltzaingoa, oro har, eta isuna jarri zuten bi agenteek beren zeregina betetzen dute isuna jartzen dietenean karga lanetarako gunean aparkatzen duten ibilgailuei, hartarako erabiltzen ez badute edo hartarako ezarrita dagoen denbora gainditzen badute; era berean, beren zeregina betetzen dute autobus izan ez eta BUS geralekuan aparkatzen duten ibilgailuei isuna jartzen dietenean. Dudarik ez dago gidariok eta bide publikoak erabiltzen ditu-

gun guztiok gehiago lagunduko bagenu trafikoa arauak errespetatzen —bizikidetzarako arauak dira, azken batean— saihestuko lirakeela trafikoko arau-haustea eta beste erabiltzaileei eragiten dizkiegun eragozpen eta arriskuak, eta, horrela, azkenik, agenteek ere isun gutxiago jarriko lituzketela.

2. Tolosako Udala agintaldi honetan politikak garatzen ari da mugikortasuna, oro har, hobetzeko eta hori antzeman daiten eguneroko bizitzan. Azpimarratzekoak dira, alde horretatik: errotazio bidez eta bertakoztat dagoen aparkatzeko eskaintza zabala, bai erdi aldean, bai inguruko auzoetan —1.800 plaza gutxi gorabehe-

ra—; herri bus berria, garraio publikoari begira; faseka egiten ari diren bidegorria. Bista-koa da gero eta gizarte motorizatuago honetan asko dagoela egiteko trafikoko arazoak konpondu dadin eta ez dagoela errezeta magikorik, baina Batzorde honek uste du norabide onean doazela gauzak.

3. Eta, azkenik, eta Udaltzaingoa euskalduna dela auzitan jarri dela kontuan hartuz, adierazi behar da langilegoaren ia ehuneko ehunak bere lanak eskatu adinako euskara maila duela, eta herritar euskaldunekin euskaraz aritu ohi direla.

INAKI ZABALZA ▶
UDALTZAIN BURUA (TOLOSA)

EUSKARA ▶

Euskarazko web orriak laguntzeko oinarriak, prest

Eskaera aurkezteko epea ekainaren 30ean amaituko da

NOELIA LATABURU

Kultur, kirol, aisialdi, enpresa, merkataritza, ostalaritza eta, oro har, publikoari «interesgarri» gerta dakizkiokeen informazioa eta edukiak euskaraz informazio teknologien bidez hedatzeko diru laguntzak jasotzeko baldintzak arautu berri ditu Udalak. Hala, euskarazko

webguneek eskaera egiteko aukera dute, ekainaren 30a baino lehen eskaera orria Udaleko Euskara eta Hezkuntza Sailean aurkeztuz —gastuen jatorrizko ziurtagiriak eta fotokopia konpultsatua, diruz lagundutako jardueraren oroitza dazkia eta diru-kontuen balantzearekin batera—.

Udalak urtero bideratzen

ditu laguntza hauek euskararen sustapenerako, eta interesatuek hainbat oinarri bete behar dituzte. Batetik, edukiak euskaraz izan beharko du, oso osorik. Bestetik, hizkuntzaren kalitatea eta zuzentasuna ere ezinbestekoak izango dira. Webgunea «elikatuta beharko du» ere eskatzaileak; hau da, bisita kopurua, erabilgarritasuna eta eguneratzea. Halaber, eduki horien barruan legetan babestutako gairik baldin badago, eskatu duenak baimenaren jabe izan behar du. Eta, azkenik, webgunea egina izan beharko du diru eskaera egiteko eta eskaera orrian helbidea jarri beharko du, Udal ordezkariak ikuskatu ahal izateko.

Diru laguntza hauen xedea «edozein alorretako, beti ere, publiko zabalari interesgarri gertatzen zaion neurrian, erakunde eskatzaileari gastuak murriztea euskararentzat garrantzitsua den erabilera-esparru honetan leku oparoa izan dezan bertako eta berezko hizkuntzak». Euskarazko lanetan, «egoitza sozial eta fiskala Tolosan dutenek» jasoko dute laguntza bai eta «elkarre, erakunde edota norbanako eskatzaileen edukietatik abia-

turik, webguneak sortzen edo erdaraz sortuta daudenak euskaratzeko proiektuak» martxan jartzen dituztenek ere.

2.000 euroko laguntza

Behin eskaera guztiak eskue-tan laguntza emateko gunearen edukien eguneratzea, forma, diseinua, maila guztientzako aproposa izatea eta software askea izatea izango du aintzat, besteak beste, epaimahaia —Udaleko informatika zerbitzuko teknikaria, IKHA zerbitzuko teknikaria eta Euskarazko Hezkuntza Batzordeko kideak—.

2.000 euroko diru laguntza banatuko dute. Eskatzaile bakoitzari, gehienez, web orria euskaraz egiteak izan duen kostuaren %50a emango zaio, 500 euroko muga gainditu gabe, hain zuzen ere.

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47- beheko
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Faxa: 943 65 09 44
e-mail: emia@emoria.com
www.emoria.com

Anoeta. Marban dagoen taberna-jatebidea alokairuan. Informazio pertsonala.
Alegia. Taberna alokairuan. Informazio pertsonala.
Aikiza. Eraikuntza berriko etxe bifamiliarra salgai. 4 solairu.
Bista oso onak.
Amezketak. Etxe abikia salgai.

Amezketak. 2 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Oso egoera onean. Nahiko eraikuntza berria. Berokuntza, trasteleku eta igogailuarekin.
Belantza. Eraikuntza berriko etxe bifamiliarra. 462.780 euro.
Hernalde. Etxe bifamiliarr ederra salmantan. Eraikuntza nahiko berria.
Ibarra. Etxe adosatua salmantan. Oso egoera ona.
Ibarra. Garaje itxi eta irekiak salgai.
Ibarra. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Dena kanpoaldera. Berokuntzarekin. Bizitzera sartzeko moduan. 210.355 euro.
Ibarra. San Inazio auzoa. Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugela. 228.385 euro.

Ibarra. Euskalerrria kalea. Oso egoera onean. Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Berokuntzarekin.
Irura. 2 logela, egongela-sukaldea, bainugela. Terraza, lorategia eta trastelekuak.
Gabiria. Paraje ederrean, eraikuntza berriko etxe bifamiliarra.
Legorreta. Eraikuntza nahiko berria. 2 logela eta 2 bainugela. Berokuntza eta trastelekuarekin.
Tolosa. Alde Zaharrean hainbat etxebizitza salgai. 168.285 eurotik aurrera.
Tolosa. Belate. 3 logela, sukalde-egongela, bainugela. 264.450 euro.
Tolosa. Berazubi. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Guztiz kanpoaldera.
Tolosa. Zumalakarregi. 165m2-ko

etxebizitza salgai.
Trastelekuarekin.
Tolosa. Zumalakarregi. 2 etxebizitza. 92 eta 97 m2. 2 eta 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Oso bista ederra. Guztiz berriak. Estreinatzeko.
Tolosa. Araba etorbidea. 4 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, 25 m2-ko trastelekuak eta garajea.
Tolosa. Trinkete. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Trastelekuak eta garaje itxia.
Tolosa. San Frantzisko ibilbidean 120 m2ko eraikuntza berriko etxebizitza salgai.
Tolosa. Erdialdean eraikuntza berriko etxebizitza. 3 eta 4 logelekin, terrazak. Sukalde ekipatuak. Garajeekin.
Tolosa. Zabalaretan. Parkeruntz

ematen du. 4 logela, egongela, sukaldea eta 2 bainugela. Garajea aukeran.
Tolosa. Pablo Gorosabel. Taberna alokairuan.
Tolosa. Araba etorbidea. Garajea alokairuan.
Tolosa. Pablo Gorosabel. 40 m2-ko bulegoa alokairuan.
Tolosa. Usabal. 2.000 m2-ko pabilioi industrialak alokairuan.
Tolosa. Guadalupe. Pabilioia, 228 behoko aldean eta 148 m2 goialdean. **Prezio interesgarria!! Zizurkil.** Eraikuntza berriko 365 m2-ko pabilioia. 9 metroko altuera. Kamioientzako sarrera, bulegoak, komunak, aparkalekuarekin.
Zizurkil. Etxe abikia salmantan oso egoera onean.

ZIZURKIL ▶ MAIATZA SALTSAN

Jende ugari bildu da ohiturari jarraituz Andatza egunean

Usurbil eta Zizurkil herriak lotzen dituen mendi eremuan goiz-pasa ederra egin zuten bi herrietakoek herenegun



Trikitilarien doinuek ere ez zuten huts egin Andantza Egunean. JOKIN AZKUE

Ikastolaren 40 urteak argazkitan

Erredakzioa ▶ Jesusen Bihotza Ikastolak 40 urte beteko ditu aurten, eta horren harira, Maiatza Saltsan egitarauan, erakusketa bat antolatu dute *Jesusen Bihotza Ikastolako 40 urteak argazkietan* izenekoa. Ikasle ohiek bizitakoak gogorarazteko aukera izango dute, eta gaur egungoek beren Ikastola nolakoa zen jakiteko. Hasierako urteetako argazkiek piztuko dute ikusmin handiena seguruenik. Erakusketa hilaren 14a arte izango da ikusgai. I. GARCIA



IMANOL GARCIA

Zizurkildarrak eta usurbildarrak elkartu ziren beste behin bi herriak lotzen dituen Andatza mendi eremuan. Herenegun izan zen topaketa, ohi bezala maiatzaren lehen egunean. Eguraldi txarra iragarrita bazegoen ere, jende ugari joan zen goiza pasatzera.

Usurbildarrak izan ziren lehenak iristen. Beraiei zegokien taberna zerbitzuaren antolaketa. Zizurkildarrei jokoetan antolaketa egokitzen zitzairen, eta dena prestatu zuten eguerdian hasteko. Ohitura bihurtzen ari den beste ezaugarria jokoetan gurasoek ez dutela parte hartzen izaten da. Horretarako haurrak izaten dira beti prest, eta beraiek jolastu ziren.

Jokoak amaituta, beste urteetan baino jende gutxiago gelditu zen bazkaria egiten. Agian somatzen zuten arratsaldeko lehen orduan botako zuten eurijasa eta babeserako bidea hartu zuten. Gelditu zirenak kafea eta kopa dohainik izan zuten taberna zerbitzuan. Andatza bertan ez ziren asko busti, baina beherako bidean batzuei harrapatu zien ekaitzak. Goiz-pasa ederra egin zuten, beraz, bi herrietakoek, Maiatza Saltsan egitarauaren baitan antolatutako ekitaldian.

VILLABONA-ZIZURKIL ▶

Udalekuetan lan egiteko begiraleak behar dituzte

ERREDAKZIOA

Villabonako eta Zizurkilgo Udalek begiraleak behar dituzte udalekuetarako. Villabonakoetan lan egiteko baldintzak euskaraz ondo jakitea eta 18 urte beterik izatea da. Izena emateko epea hilaren 19a arte da (egun hori barne) eta Udaleko Euskara Zerbitzura deitu behar da, 943 69 35 01 zenbakian.

Zizurkilgo Udalarri dagokionez, bete beharreko baldintzak ondorengoak dira: Zizurkilgo erroldatua egotea, 18 urteak beteak izatea edo 2006. urtean betetzea, euskara ondo menderatzea eta azterketa teoriko-praktikoa egitea. Sei begirale kontratuko dituzte guztira. Izena emateko epea hilaren 29an bukatuko da. Informazio gehiagorako eta izena emateko Aurrera Plazako udal bulegoetara jo behar da, edo 943 69 24 95 telefonora deitu (goizez).

VILLABONA ▶

‘Euskal Herria y el socialismo’ liburuaren aurkezpena

ERREDAKZIOA

Maiatza Gorriaren egitarauri ekingo diote bihar; ekimenaren harira, eskualde guztian izango dira hitzaldiak. Biharkoa Villabonako Gazte-txean egingo da, 19:00etan, eta Eloy Val del Olmoko eman-go du. *Euskal Herria y el socialismo* liburuaren aurkeztuko du bertan.

ABURUZA Eraikuntzak, S.A.

Kale Berría, 46 behea • Tel.: 943 69 02 97 • Fax: 943 69 00 52 • 20150 VILLABONA

iragarki laburrak ▶

LANA

Gidaria. Tolosako garraio enpresa batek gidaria behar du C gidabaimenarekin. Eskarmentua garraio nazionallean eta nazioartekoan. 629 71 48 31.

SALGAI

Autoa. Renault Kangoo RXE DTI. 2000koa. 88.000 kilometro. Estrak. 943 69 71 94.

▶ **TOLOSALDEKO HITZA.INFO**

Eztabaida. Irakurleek parte hartzeko hainbat aukera dituzte webgunean. Horien artean inkestak eta eztabaidak; ondorengo, esaterako: Zer iruditzen zaizu Tolosako Voith-Gorostidi eremuko etxebizitza tasatuetako zozketan parte hartu ahal izateko jarritako baldintzak?

IKAZTEGIETA ▶

Haur Eskolaren matrikula epea hilaren 12ra arte

Ikaztegieta Haur Eskolan izen-emate epea zabaldu dute, eta bertara haurrak eraman nahi dituen edonork izena eman dezake hilaren 12ra arte. Horretarako Haur Eskolara bertara joan behar du. Kiroldegiko eraikuntzan dago kokatua Haur Eskola, eta ordutegia 08:30etatik 13:30etara izango da. Haur Eskolan hasteko, haurrak gutxienez 16 aste izan behar ditu, eta irailan hasiko litzateke. Egokitzapenaldi bat egoten denez, epe horretan kuota ezberdina izaten da. Ordaindu beharreko kuotak honakoak dira: 5 ordu edo gutxiago, 135 euro; 5 ordu baino gehiago, 180 euro.

ALEGIA ▶

San Felizsimora joateko autobusa antolatu dute

Ekainaren 4an, igandea, Alegiatik San Felizsimora joateko autobusa antolatu dute Txindoki autobusetakoek. Pasionista elizara joateko da, Deustuan (Bizkaia). Aspaldi egiten zen bidai hau, eta urte askotan ez da egin. Aurten goarekin berreskuratu nahi izan dute ohitura hori, eta izena autobusean joateko ondorengo telefono zenbakian egin behar da: 943 65 30 12. Ahal bada, izena lehenbailehen ematea eskatu dute antolatzaileek.

IKAZTEGIETA ▶

AHTren aurkako kontzentrazio egin dute

Ikaztegieta joan den ostira-lean 25 bat lagun elkartu ziren, Abiadura Handiko Trenaren aurka egindako kontzentrazioan. Bertara bildutakoek eskualdean zuzenean eragingo duen AHTren «inposaketa salatu eta proiektu txikitzailea berehala geratu dadila» eskatu zuten.

BALIARRAIN ▶ GIZARTEA

Txekor jatearen eguna beste behin errepikatzeko irrikitan

Eguraldiaz, giroaz, jendetzaz eta gustuarekin egindakoez disfrutatzen duen eguna



Lore saltzailea plazan egon zen. Urtean zehar ikastaroan Baliarraingo lagunek traste zaharrak ederki apaindu dituzte. HITZA

NEREA URBIZU

Txekor jatearen eguna igaro zen Baliarrainean, baina hori ez zen ekitaldi bakarra izan egunean. Bazkarian 186 lagun elkartu ziren, eta guztiek ondorengo ekitaldietaz gozatzeko aukera ere izan zuten. Egur-dian hasita, loreen azoka izan zen plazan. Urretabizkaia lore denda egon zen bertan, eta, antolatzaileek azaldu dutenez, «oso pozik geratu da dendaria, hurrengo batean berriro etortzeko gogoz». Erakusketa ere antolatu zuten herrian: bertakoek egindako eskulanak eta egun balioa ez duten gauzak eraberriturik edo itxura aldaturik ikusteko aukera izan zen.

Horrez gain, argazki eta marrazki lehiaketa ere bazen, eta kalean erakusgai izan ziren lanak, Jai Batzordearen ekimenez. Aldez aurretik zehaztutako gaia jorratu zuten guztiek: Baliarrain herria. Sariak ere banatu zituzten: Ianire Zubeldia-arentzat lehena: bi lagunentzako otordua Zartagi jatetxean; gainera, bere marrazkia duten kamisetak aterako omen dituzte. Ane Garmendia eta Ugaitz Ugartemendia ere aritu ziren.

Eguraldi ederra egiteaz gain, ekintza guztietan «giro bikaina» izan zen: «Hurrengo batean egiteko moduko eguna».

maiatzaren
11tik aurrera

berria berria = berria²

kazeta eredu berria

berritzailea, ezberdina, interpretatiboa, kalitatezkoa, modernoa,...

Gurean ULERTUKO DUZU

aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**

Sukaldaria behar da Tolosako jatetxe baterako.

Tel.: 646 02 29 59

HERRI KIROLAK ▶

INIGO TERRADILLOS

Urrezko Aizkolarien Txapelketako kanporaketak jokatu ziren herenegun Urduñan eta Idiazabal, eta eskualdeko aizkolariek aurrera egiteko txartela lortu zuten.

Urduñan, Arrospide eta Mindegia aritu ziren nor baino nor eta leaburuarra gailendu zen. Kana-erdikoa zutik moztuz hasi ziren, eta Arrospide 2 minutu eta 2 segundoko denborekin izan zen lehena; 45 ontzakoarekin zeinek kolpe gutxiagotan moztu neurtu ziren, eta 41 kolpe behar izan zituzten bi aizkolariek. Erlojuz kontra, 45 ontzakoarekin Ezkurra-koa nagusitu zen, 46 segundo behar izan zituelarik; 60 ontzakoarekin, ordea, Leaburukoa izan zen nagusi. Azkeneko lana, bi 45 ontzako, bi kana-erdiko eta bi 60 ontzako moztean izan zen, eta berriz ere Arrospide gailendu zen, 14 minutu eta 6 segundorekin. Orotara, 19 minutu eta 20 segundo behar izan zituen leaburuarrak, eta 20 minutu eta 31 segundo Ezkurra-koak.

Igandeko probarekin gustura dago Leaburukoa, eta «saio polita» egin zuela azaldu dio HIZTARI. Garaipen horrekin, urrats handia egin du finalerdietara sailkatzeko, baina lehendabizi Larretxearen aurkako izango du; (igandean bezala arituz gero, aurrera egiteko aukerak izango ditut, baina horretarako hurrengo proban gorputza prest izan beharko dut; edonola ere, gutzia emango dut).

Idiazabalen, berriz, gazteen mailan, Otaegiren eta Amillanoren arteko lehia izan zen. Zizurkildarrak Amillano lehiaketatik at utzi zuten, eta finalerdietarako txartela lortu zuen. 12 minutu eta 17 segundo behar izan zituen Idiazabalgo proban, eta 15 minutu eta 34 segundo bere aurkariak. Erraz gailendu zen, beraz. «Irabazteko eta txapelketan aurrera egiteko esperantza nuen; ondo ikusi nuen neure burua, Amillanok, ordea, ez zuten bere maila eman», azaldu du zizur-

Arrospidek eta Otaegik aurrera, Urrezko Aizkolarien lehian

Saralegi eta Perurenak galdu egin zuten Izeta III.aren eta Goenatxoren aurka, Urrezko Harri-jasotzaileen Txapelketan



Saralegi eta Perurena, igandean Idiazabalen, Urrezko Harri-jasotzaileen Txapelketan. KOLDO ALDUNTZIN / BERRIA

ANGEL ARROSPIDE AIZKOLARIA

«Herenegun bezala arituz gero, Larretxea gainditu eta finalerdietan lehiatzeko aukerak izango ditut»

kilgoak. Finalerdietan Rekondo leitzarria izango duela arerio gogorra uste du Otaegik.

Urrezko Harri-jasotzaileen Leitzakoek kale

Idiazabalen, aizkolarien lehian oron, Urrezko Harri-jasotzaileen Binakako Txapelketako kanporaketa berri bat jokatu zuten. Saralegi eta Perurena leitzarrik batetik eta Izeta III.a eta Goenatxo bestetik aritu ziren nor baino nor, eta azken bikoteak irabazi zuten. 100 kiloko zilindroari 34 jasoaldi eman zizkion Izeta III.ak,

JOSEBA OTAEGI AIZKOLARIA

«Txapelketan aurrera egiteko esperantzak nituen; finalerdietan arerio gogorra Rekondo izango da»

eta 32 Perurenak. 200eko errektangularrari 7 jasoaldi eman zizkion Goenatxok, eta bat gutxiago Saralegik. Txanda librean, berriz, 113ko kubikoarekin gipuzkoarrek 24 jasoaldi eman zizkioten, eta nafarrek 21. 100 kiloko bolarekin Perurena eta Saralegi nagusitu ziren. 32 aldiz berdindu baitzuten, eta gipuzkoarrek 30. Jasoaldi guztiak batuta, Izeta III.a-Goenatxok irabazi zuten 95 jasoaldirekin, 10.512 kilo. Leitzakoek 91 jasoaldi egin zituzten.

Leitzarrek Izeta III.a eta Goenatxo aurkari gogorrak direla

MIELTXO SARALEGI HARRI-JASOTZAILEA

«Indarrarekin egin ahal dugun guk lan, eta ez erresistentziarekin; dena den, lan polita egin dugun faboritoren aurka»

eta espero zutela galtzea adierazi diote HIZTARI; «guk harri handiekin lan egin izan dugun beti, indarraren bidetik, eta proba honetan txikiagoak altxatu behar dira, erresistentzia lana da; gure aurkariak ohituagoak daude lan mota horretan, eta, gainera, beraiek dira faboritok». «Gure maila eman genuen, eta azkenean ez zen hainbesteko alderik izan; gure ustez lan polita egin genuen». Leitzarrek Idiazabalgo kanporaketa galdu arren, aurrera egingo dute txapelketan, euren multzoko Urpe eta Zelailuzerretiratu egin baitira.

GAZTELU ▶

Osasunari buruzko hitzaldiak egingo dituzte

ERREDAKZIOA

Uli Mankomunitateak antolatuta eta Kutxako ikasgelak sustatuta, osasunari buruzko hitzaldiak egingo dituzte urtean zehar Gaztelun. Bihar egingo dute lehenengo jardunaldia, 18:00etan, herriko elkarteetan. Zaintzen duen pertsonaren zaintza izango da landuko duten gaia.

Gaurkotasunezko hainbat gai jorratzea eta eguneroko bizimodurako ohitura eta praktika osasungarriak lantzea da jardunaldi hauen helburu nagusia. Biharkoaren helburua mendekotasuna duten pertsonak zaintzen dituztenen kontzientzia maila altatzea, euren buruak ere zaintzen ikastea, eta horrela beren lana baldintza fisiko eta psikiko jasagarrietan egin dezaten lortzea da.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernaldea. Medikua: 65 23 39
- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarraldea. Osasun ebea: 672411
- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leizta. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Orea. Medikua: 682228
- ▶ Tolosa.
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
 - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
- ▶ Donostiako autobusa: 361740
- ▶ Tolosaldea bus: 650621
- ▶ Leitzarri autob.: 948 221015
- ▶ Taxia: 670420
- ▶ Taxia (Leizta): 608 873016

Besterik.

- ▶ Ertzaintza: 538820
- ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
- ▶ Tolargi: 650016
- ▶ Iurrumendi egoitza: 670325
- ▶ Tolosa gasa: 675320

iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13
VILLABONA
Tel.: 943 69 68 56
mug.: 616 93 17 88



Aduna. Bifamiliarra salgai. 150 m2 eta 60 m2-ko garajea. Kapritxoz eginko erreforma. Material ezin hobekak. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Amezketak. Etxea abikia salgai. Eraiki berria. Informa zaitez! Etxesagasti. 943 69 68 56.

Andoain. Etxebizitza altua, igogailuarekin salgai. Egongela, sukaldia, 2 logela eta bainugela. Erabat berria. Zonalde oso onean.

44.000.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Ibarra. Aukera paregabea! Pisu zoragarria. Egongela, sukaldia, 3 logela eta komunak. Ezin hobekak. 41.700.000 pezeta. Etxesagasti. 943 696 856.

Andoain. Egongela, sukaldia, 3 logela eta bainugela. Bizitza sartzeko moduan. Berokuntzarekin. Kanpoaldera. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Legorreta, Berrobi, Baliarrain, Itsasondo eta Albiztur.

Egoera oneko baserriak, lursailarekin. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Tolosa. Egongela, sukaldia, 3 logela eta bainugela. Egoera onean. Oso eguzkitsua. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Legorreta. Eraiki berria. Egongela handia, sukaldia, bi logela eta 2 bainugela. Trastelekua. 41.500.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

LEITZA ▶ NATURA



Oinez. Familia giroa nagusitu zen igandean Bide Berdeen Egunean. Udaberriko giro goxoa lagun, adin guztietako ibiltariak bete zuten egunari men egiten dion Plazaolako trenbidea. J. ASTIBIA



Beste aukerak. Bidea zaldiz nahiz birringaz egin zuenik ere izan zen. Hiru zaldizkoek ibilbide osoa egin zuten, hainbat birringazalek bezala. Hainbesteko ibilaldia egiteko oraindik ttiki samarrak izaki, beste batzuk joan-etorri motzaxeagoa egin zuten, baina itzulera luxe-luxe egiten da hala ere, aldapa gorantzzen baita. J. ASTIBIA



Jostaketa. Kirola eta hamaiketako eginda, jostaketak ere bere tarte izan zuen Bide Berdeen Egunean. Pailazoekin batera, Errekara joan eta han hainbat joko egin zituzten gazteboenek; Estazioan, berriz, makilaia tailerra izan zuten, goizean hedatzeak ziren golbo aerostatikorik ezean (haize gehiegigatik). J. ASTIBIA



Bide berdean zehar udaberriaz goxatuz

la 800 lagun ibili dira Plazaolako trenbide berreskuratuan, igandean egindako Bide Berdeen Eguneko ospakizunetan

JAIONE ASTIBIA

Igande goiza eguzkitsua eta alai argitu zuen eta Euskal Herriko eskualde desberdinetatik etorritako 800 lagun baino gehiagok Plazaolako tren tikiaren

ibilbide berreskuratuan zehar goiz-pasa egiteko aukera egin zuten: Bide Berdeen egunean, udaberriko berdetasun bizia izan zuten erabateko bidelagun, oinez, asko eta asko txirringaz, nahiz zaldiz, egunera-

ko proposatutako ibilaldi desberdinak egin zituztenek.

Famili giroa nagusitu zen. Gerturatu ziren gehienak gurasoak beren umeekin izan baitziren. Eta hala, ibilaldirik jendetsuena ere, umeena izan zen;

eurentzat egoki-egoki prestatutako pailazo talde batekin egin baitzuten Leitzako Estazioan Erreka auzorako joan-etorria. Auzo horretan, gainera, hainbat jokotan ibiltzeko aukera izan zuten ttikiak.

Bestela, proposatutako ibilbideak oso-osorik txirringaz nahiz zaldiz egin zituenik ere izan zen. Baita egun horretako beste erakusgarriaz, Iñaki Perurena prestatzen ari den Peru Harri parkera joateko baliatu zuenik ere, asko: eguerdiaz gerroztik bi autobus ttiki, jendea eraman eta ekartzen aritu zirelarik. Han, Perurenak berak, egitasmoaren nondik norakoen azalpenak eman zizkien

gerturatutakoei. Ibilian, ordea, gosea ere egiten da eta, Estazioan bertan hamaiketako banatu zuten antolatzaileek; bitartean, Skifaia folk taldeak musikaz alaitu zuen giroa.

Aitatu ere goizean hainbat tuneletako argiztapenak huts egin zuela, baina 11:30erako itzuli zela argia, eragozpen gehiagorik eragin gabe.

Baina «beste behin ere oso negatibo» izan zena, antolatzaileen esanetan, bide berdera sartu ziren hainbat motor, «bide berdera dauden sarrera guztietan debekatuta dagoela jartzen duen arren». «Zorionez», ez zuten istripurik eragin.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

Harpidedunei banatua ▶ 2006ko maiatzaren 9a, astearte ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA



goizez



arratsaldez



beroena

14

hotzena

12

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
 (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Belauntza, Leaburu-Txarama. Igandean Herri Urratsera joateko autobusa antolatu dute Udalek. Hilaren 10a arte eman daiteke izena Leaburuko udaltxean, Belauntzako Kultur Etxean eta 943 67 00 20 telefono zenbakian, 8 eurotan.

Tolosa. Aralar VI. Txirrita mendi ibilaldia antolatu du Oargi mendi taldeak 21erako. Amezketatik 06:00etan abiatu eta Aralarko 13 gailur igo behar dira. 45 kilometro dira guztira, Amezketan amaitu arte. Izen-ematea, 943 67 56 12 telefono zenbakian edo oargi@telefonica.net helbidean, 10 eurotan.

Villabona. Aizkardi mendi elkarteak Orduña-Garobel-Ahedo mendi irteera antolatu du igandearako. Izen-ematea, elkartearen.

ERAKUSKETAK

Tolosa. Iñaki Olazabalen eskulturak. Hilaren 27a arte ikusgai, Aranburu Jauregian.

Tolosa. Mari Carmen Ortegaren pintura lanak, Lanbroa tabernan.

HITZALDIAK

Tolosa. 3. mailako ikasleen gurasoei zuzendutako saioa. 19:00etan, Orixen.

Tolosa. Ikasketara eta lan irteerari buruzko informazio saioa (Unibertsitatean eta Zikloetan matrikulatzeko egin beharreko tramiteak). Bihar, 19:00etan, Orixen institutuan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
 Leitza, Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.
 Tolosa, Santa Maria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.

IRRATIA

Txolarre irratiak (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren errepaso, elkarrizketak, albisteak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
 18:00-19:00. *Adi Guri* irratsaioa, Anoetako Herri Ikastolako DBH 1 eta 2ko ikasleek prestatzen duten saioa.
 21:00-22:00. *Zaharrak berri*, Irulegi irratiak eskainitako saioa, Arrosa Irrati Ekoizpen Zentroaren eskutik.
 22:00-23:00. *Street noise* musika saioa.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Hasi da Berrobiko XVI. Kultur Astea

BERROBI ▶ Suziriak iragarri zuen, atzo, Berrobiko XVI. Kultur Astearen hasiera. Buruhandiatatik ihes eginez aritu ziren txikitxoanek festa giroan, eta gero Zizurkilgo Danena elkarrearen halterofilia erakustaldiaz gozatzeko aukera izan zuten Urreburu pilotalekura joanda-

koek. Gaur ere izango da zer eginik: 17:00etan, Urreburuko gaztetxoan partidak izango dira ikusgai. Eta 18:30ean sukaldaritza erakustaldia emango du Felix Belaunzaranez Bide Ona elkartearen egindako platerak zozketatu egingo dituzte, eta haurtzaindegi zerbitzua jarriko dute, Etxolan. I. T.

AGURRAK ▶



ZORIONAK
 Josu Ibarbia Perurena (Ibarra). Gaur 11 urte. Segi horrela, bizkor, aita eta amaren partetik.



URTE ASKOAN
 Irati Irazusta (Anoeta). Gaur 5 urte, panpoa. Zorionak aitaboa eta amaren partetik.



URTE ASKOAN
 Amaia (Anoeta). 6 urte. Galtza zuziak bikiak geratzen ari zaizkizul Zorionak eta muxu asko familia guztiazen partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa

hitza
 agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

GALTZAUNDI ▶



Aldizkaria. Galtzaundi.
Zenbakia. 234.a (2006ko apirilaren 28a).
Orrialdeak. 24.
Tirada. 5.000 ale.
Gai nagusia. *Eskola-kirola eztabaidagai.*
Beste gaiak. Bai Euskarari Ziurtagiria, Sahararen aldeko bertso solidarioak, Oargi mendi elkarte, Ibarra areto futbol, Ikaztegiatiko haurtzaindegia...
Argitaratzailea. Galtzaundi Euskara Taldea.
 ▶ Nafarroa etorbid., 6-behea.
 ▶ 943 65 50 04
 ▶ galtzaundi@galtzaundi.com
 ▶ www.galtzaundi.com

AIURRI ▶



Aldizkaria. Aiurri.
Zenbakia. 255.a (2006ko apirilaren 28a).
Orrialdeak. 28.
Tirada. 2.500 ale.
Gai nagusia. Erniopeko Marxa.
Beste gaiak. Asteasuko santakruzak, Agenda 21 egitasmoa Villabonan, EHNA egiteko aukera, Iker Goenaga musikari zizurkildarra, Maiatz Saltan, Larraulen hamar urte Anton Amonarri gabe...
Argitaratzailea. Manuel Larramendi Kultur Bazkuna.
 ▶ Kale Berria 47, 3. esk.
 ▶ 943 69 64 50
 ▶ aiurri@topagunea.com
 ▶ www.aiurri.com